

Ekipoa	Hondakinen kudeaketarako eta bilketarako RFID teknologia
Kodea	C-3007
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Bildutako hondakinen kalitatea hobetzea. - Gas-emisioak minimizatzea, bilketa-ibilbidea optimizatzearen ondorioz. - Lurzoruan eta uretan eragindako inpaktua minimizatzea.
Honetan datza:	<p>RFID da datuak gordetzeko eta berreskuratzeko urruneko sistema elektronikoa, RFID etiketa, txartel edo transpondedoreak (RFID tagak) esaten zaien dispositiboak erabiltzen dituenak. RFID teknologiaren helburua da objektu baten identitatea eta ezaugarriak (serie-zenbaki baten antzera) igortzea irrati-uhinen bidez. RFID teknologiak Auto ID esaten zaien teknologien artean daude (<i>automatic identification</i> edo identifikazio automatikoa). RFID sistema batek honako hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tag bat edo gehiago. - Gailu bat edo gehiago. - Antena bat edo gehiago. - Aplikazio-softwarea eta ordenagailu nagusia. <p>Hondakinen kudeaketaren alorrean, azpimarratzekoa da RFIDak baldintza batzuk bete behar dituela, egoki jardun ahal izateko. Lehenik, sistema sendoak eta oso fidagarriak izan behar dute; izan ere, teknologia horren helburu nagusietako bat da bilketa-zerbitzuan eragitea eta kudeaketa nahiz fakturazioa hobetzea. Bigarrenik, baldintza hauek kontuan hartu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Temperatura-tarte hedatua: operatiboa 30–70 °C, biltegitratzea 30–85 °C. - Gutxieneko ingurumen-babesa IP65. - Bibrazioa eta talka (testak gainditzea). - Kapsularatze erresistenteak. - Bus CAN, ibilgailuetako gailuen (pisaketa, identifikazioa,...) eta sistemen arteko komunikaziorako, ibilgailuen arteko komunikaziorako nazioarteko estandarra baita. - Elikaduraren tentsio-tarte: 8–30 Vdc. - Betekizun guztiz hertsia ez bada ere, RFID identifikazio-sistemek ezaugarrihauek izan behar dituzte, hondakin-bilketaren sektorean jarduteko:



	<ul style="list-style-type: none">- 134 kHz-ko <i>half-duplex</i> teknologia (HDX)- Irakurketarako soilik diren 134 kHz-ko <i>half-duplex</i> (HDX) transpondedore identifikatzaileak.- Gutxienerako irakurketa-distantzia: 200 mm.- Identifikazio-akatsen gehieneko ehunekoa < % 0,05- Ibilgailuko ordenagailuarekin konektatutako irakurgailua, ibilgailuentzako bus CAN komunikazio estandarren bidez.- Datuen osotasuna eta segurtasuna bermatzeko sistema, erakunde ofizial batek egiaztatua.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Sektore hauetan aplikatu daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none">- Hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatzea; balorizazioa (NACE: 38).